



## FUNTZIONAMENDU ARAUAK- Ospitalizazioko Unitatea Kirurgia Orokorreko Zerbitzua (Urdai-esofagoko endokrino atala)

### Dei egiteko beharrea bazaude, ERABILI GELAKO TXIRRINA

### MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.

### EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



- Interbentzioaren ondoren: zirujauaren informazioa emango dizu 2. solairuko operazio-geletako sarreran.
- Interbentzioa urgentea bada: 1. solairuko operazio-gelako sarreran emango da informazioa.
- Anestesia ondoko bizkorketa 2. solairuan egingo da (ABU).

### MEDIKUAREN IKUSTALDIA



- Egunero, igande eta jaiegunetan izan ezik, 10:00etatik 12:00etara gutxi gorabehera.
- Bisita hasterakoan megafoniaz abisua emango dizugu bisitari guztiak irteteko eta 12:00ak arte ezin izango zarete unitatera sartu.
- Bisita bitartean medikuak zure osasun-egoeraren berri emango dizu.

### FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA

- Astelehenetik ostiralera 12.00etan, unitateko sarreran dagoen ataleko medikuaren bulegoan.

#### OTORDUAK



9:30ean Gosaria  
13:30ean Bazkaria  
17:30ean Merienda  
20:30ean Afaria

#### BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.** Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke. Medikuren bisitan zehar, 10:00etatik 12:00etara izan ezik. Tarte horretan unitatean ez de senderik onartuko.

### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitetz harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



### **TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

**Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.**



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



**KAFETEGIA** Orduategia: 8:00etatik 22:00etara.

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen

**OSPITALEKO ALTA.** Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri.

Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea.

**Altaren egunean komenigarria da gela uztea txosten-medikoa jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.**

### **Laguntza erlijiosa eta espiritual:**

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren orduategia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen orduategia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Orduategia:** - Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.